

EUSKAL HERRIKO ZAZPI SAGARDO, MUNDUKO EHUN ONENEN ARTEAN

Euskal Herrian ekoiztutako zazpi sagardo aukeratu ditu Susanna Forbes kazetari eta idazle britainiarrak bere "The Cider Insider. The essential guide to 100 craft ciders to drink now" libururako. Argitalpena Sagardoaren Kultura eta Turismoaren Topaketaren testuinguruan aurkeztu zen Astigarragan.

Susanna Forbes, ardoan, garagardoan eta sagardoan berezituriko kazetaria eta idazlea da, eta hamahiru herrialdetako 100 sagardo artisau gomendatzen dituen liburua argitaratu berri du.

Liburuan azaltzen diren sagardoen artean, Euskal Herriko zazpi daude: Zelaiako Gorenak Sagardoa 2017 (Hernani), Zapiaingo Euskal Sagardoa Premium 2017 (Astigarraga), Isastegiko Euskal Sagardoa 2017 (Tolosa), Gartziategiko Gorenak Sagardoa 2017 (Astigarraga), Gaztañagako Gorenak Sagardoa 2017 (Andoain), Bereziartuako Euskal Sagardoa 2017 (Astigarraga) eta Bordattoko Txalaparta 2016 (Jatsu Garazi, Nafarroa Beherea).